

Arriaga Antzokiak turista eta bisitariei atea zabalduko dizkie, asteburutik aurrera berriro ere bisita gidatuak eskainiz euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez

- Antzokiko txoko ederrak bisitatu ahal izango dira, ataria, foyerra, besaulki patioa eta jendearentzat ezezagunak diren Orient Express aretotxoa edo areto Isabeldarra bezalako lekuak, besteak beste.
- 133 urte dituen Arriaga Antzokia Bilboko eraikin enblematikoenetakoa da, Monumentu Historiko izendutakoa, eta bisitan zehar pasarte historikoak eta anekdotak gogoraziko dira.

Bilbon, 2023ko abuztuaren 31n.- Arriaga Antzokiak bisita gidatuak berreskuratuko ditu asteburu honetatik aurrera. Bisita horiek hiru hizkuntzatan eskainiko ditu: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Arriaga Antzokiak, 1890ean eraiki zen eta Monumentu Artistiko izendatuta dagoen arkitekturako harribitxi horrek atea parez pare irekiko ditu, hiriko Alde Zaharreko atea eta Euskadiko zein estatu mailako Kulturaren sinbolo den Bilboko eraikin enblematiko hori ezagutu nahi duten guztientzat. Oinezkoak begi bistan dauka bere arkitektura neo-barrokoa, baina hemendik aurrera bisita gidatuei esker jende guztiak barruko diseinu eta arkitektura berezia ezagutzeko aukera ere izango du. Larunbat honetan, irailak 2, lehenengo bi bisitak gaztelaniaz eskainiko dira, 12:00etan eta 13:00etan. Hurrengo egunean, hilak 3, igandea, 11:00etan hasita ingelesez egin daiteke bisita eta 12:00etan euskaraz.

Dagoeneko salgai dira irailean zehar izango diren bisita gidatuetarako sarrerak, online zein leihatilan, eta datak gehituko dira apurka apurka. Garrantzitsua da aipatzea bisiten egutegia jarduera eszenikoaren arabera dela, eta une bakoitzean antzokiaren baitako espazioek duten okupazioaren arabera. Beraz, bisitak ez dira astebururo egingo. Baina, bisitak daudenean, larunbatetan eta/edo igandeetan izango dira beti, hori bai. Egutegi zehatzaren berri izan nahi baduzu, kontsultatu www.teatroarriaga.eus webgunea edo jo arreta pertsonalizatuko guneetara, hau da, leihatilara edo Informazio Bulegora.

Bisitaren xehetasunak

50 minutu inguruko iraupena duen bisita antzokiaren atarian hasiko da, eta Juan Crisóstomo de Arriaga eskaileratik jarraituko du foyerrera. Ibilbidean, normalean jendea sartu ezin daitekeen zenbait areto ezagutuko dira, Orient Express aretotxoa eta areto Isabeldarra, besteak beste. Bisitan ez dira faltako, jakina, areto nagusia eta bertako besaulki patio ederra, ezta Ohorezko Palkoa ere. Ibilbide guztia, gidari gisa arituko den, datu historikoen berri emango duen eta anekdota ugari kontatuko dituen pertsona batek lagunduta egingo da.

Bisita erakargarri egiten duen beste puntuetako bat, jantzi erakusketa txiki baina ezin ederragoa jasotzeko bereziki egokitutako txoko batean geratzeko aukera izango da.

Arriaga Antzokiak ekoiztutako zenbait muntaketa lanetatik aukeratutako jantzi erakusketa da.

Jende guztiak gure ondarearen ikono handi hori ezagutzeko aukera izan dezan, prezio merkea ezarri da bisita gidatuetarako, 5 eurokoa, hain zuzen ere, eta 3 eurokoa mugikortasun urria duten pertsonentzat. Horrez gain, sarrera doakoa da lagundutako 18 urtetik beherakoentzat (heldu bakoitzeko bi sarrera gehienez) eta 25 urtetik beherako ikasleentzat. Doako sarrerak leihatilan emango dira, bete arte.

Bisitari datozen pertsonak haien esperientzia konpartitzeko edota bisita gidatuen inguruko iruzkinak emateko hurrengo helbide elektronikora idatzi dezakete:
visitasguiadas@teatroarriaga.eus

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicación@teatroarriaga.com
www.teatroarriaga.com